

# MARÍA PAZ JIMÉNEZ

Diamante egonezina / Diamante inquieto





**ERAKUSKETA EXPOSICIÓN**

*Maria Ruiz Jiménez*

**Diamante egonezina / Diamante inquieto**

2020ko irailaren 17tik azaroaren 22ra arte.  
Del 17 de septiembre al 22 de noviembre de 2020.

**MENCHU GAL ARETOA IRUN**

Antolatzailea / Organiza:  
**Irungo Udala. Kultura eta Kirol Arloa**  
**Ayuntamiento de Irun. Área de Cultura y Deportes**

Komisariotza / Comisario:  
**Iñaki Moreno Ruiz de Eguino**

Testuaren egilea / Autor del texto:  
**Iñaki Moreno Ruiz de Eguino**

Argazkiak / Fotografias:  
**Idoia Unzurrunzaga Llach**  
**p. 18 Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa**  
**p. 19 Colección Kutxa Bilduma - Jantxo Egaña**  
**p. 21 San Telmo Museoa - Jantxo Egaña**  
**p. 22 San Telmo Museoa**

Diseinua / Diseño:  
**typo90**

Argitaratzailea / Editor:  
**Irungo Udala / Ayuntamiento de Irun**

Lege Gordailua / Depósito Legal:  
**D 00704-2020**

Azala / Portada:  
**Autorretrato, c. 1950-52**  
**Olioa mihisean / Óleo sobre lienzo**  
**53 x 45 cm**

## Diamante egonezina

María Paz Jiménez (1909–1975)

Iñaki Moreno Ruiz de Eguino

**1** 10 urte dira María Paz Jiménez jaio zela, pintore ausarta, XX. mendeko euskal eta espainiar artearen aitzindari ukaezina, emakume apurtzailea, atzarria, atsegina, eskuzabala, zorrotza eta zoliaz.

María Escudero nafarraren eta Arturo Jiménezen alaba, Valladoliden jaio zen, 1909an, baina, sei urte zituela, Donostiara aldatu zen. Denboraldi batean, familiak oihalen salmenta ibiltarian eta jantzigintzan jardun zuen, eta aurrera egin eta, azkenean, galtzak egiteko jostundegi bat ireki zuen, Donostian.

Pintoreak berak dioenez, artearekiko interes goiztiarra sentitu zuen: “Hamabi urte nituela, ikusten nuen guztia marrazten nuen, ez maisurik ez irakaskuntzarik gabe. Ordurako, espazio sideralen misterioaren zale amorratua nintzen, eta burkoaren azpian inoiz ez zitzaidan falta Flammarionen dibulgazio astronomikoko obraren bat”.

Bete-betean, ordea, urte batzuk geroago eman zen pinturara: “Txikitan, nerabezaroan eta gaztaroan izan nintzena amets urrun bat balitz bezala gogoratzen dut, tristea, absurdoa. Inoiz ez nuen izan harremanik inguruan nuenarekin, eta, neurri batean, berdin jarraitzen dut, beste modu batean baina”, adierazi zuen María Pazek <sup>1</sup>.

Gaztaroan, Alfredo Bizcarrondo ezagutu zuen. Gazte sentibera eta irekia zen Alfredo, eta, ikusi zuenean neska lagunak bazuela alderdi sortzaile bat, eskolak ematera animatu zuen. Bada, María Paz en lehenengo irakaslea Jon Zabalo “Txiki” kartelgile ospetsua (Manchester, 1892 – Londres, 1948) izan zen.

1 “Carta a mí misma”. María Paz, 1968.

## Diamante inquieto

María Paz Jiménez (1909–1975)

Iñaki Moreno Ruiz de Eguino

**S**e cumplen 110 años del nacimiento de María Paz Jiménez, pintora audaz, precursora indiscutible del arte vasco y español del siglo XX. Mujer rompedora, despierta, agradable, desprendida, perspicaz y sagaz.

Vino al mundo en Valladolid en 1909. Hija de María Escudero, natural de Navarra y de Arturo Jiménez, matrimonio que trasladó su residencia a Donostia-San Sebastián, cuando nuestra pintora contaba seis años. Durante un tiempo la familia se dedicó a la venta ambulante de telas y confección. Fueron prosperando y abrieron en la capital donostiarra, una sastrería dedicada a la elaboración de pantalones.

Ella nos relata que sintió una inquietud adelantada para el arte: “A la edad de doce años dibujo todo lo que veo, sin maestro ni enseñanza. Ya entonces me apasionaba el misterio de los espacios siderales y bajo mi almohada nunca faltaba alguna de las obras de divulgación astronómica de Flammarion”.

Aunque la dedicación plena a la pintura le llegó años después.

“Lo que fui de niña, adolescente y joven, lo recuerdo como un sueño lejano, triste, absurdo. Nunca tomé contacto con lo que me rodeaba y en cierto modo sigo así, si bien ahora es de otra forma”, testimonia María Paz <sup>1</sup>.

En su juventud conoció a Alfredo Bizcarrondo. Joven sensible y abierto quien, al descubrir la faceta creativa de su novia, le anima a tomar clases. Su primer profesor fue el afamado cartelista, Jon Zabalo “Txiki”, (Manchester 1892-Londres 1948)

Aquellas lecciones recibidas de “Txiki”, posiblemente pudieron haber influenciado en los modos dibujísticos originarios de María

1 “Carta a mí misma”. María Paz, 1968.

Baliteke Txikirekin emandako eskolek María Pazen jatorrizko marrazketa moldeetan eragina izan izana, mundu lau eta lañoa irudikatzen baitute, irakasleak ilustratzaile xalo gisa landutakoaren parekoa.

María Paz Donostian ezkondu zen senargaiarekin, baina, 1933an, bikotea Madrilen kokatu zen, non Alfredok ingeniari-tza ikasketak osatu zituen. Madrilen bertan, 1935ean, Carlos semea jaio zen, zeinak helduaroen pinturan jardun zuen.

“Ezkonduta nengoen eta 25 urte nituen pinturan hasi eta bete-bete eman nintzenerako”.

Orduetik, molde transzendenteen bilaketa eta are galdeketa espiritualak suma daitezke haren pinturan.

1936an, matxinoek Donostia hartu zutenean, bertan bizi ziren María Paz eta Alfredo, eta Frantziara ihes egitea erabaki zuten, eta, gero, Argentinara joatea.

## ARGENTINAKO ERBESTEALDIA

1938tik 1945era bitartean, familia Buenos Airesen bizi izan zen, II. Mundu Gerra bukatu zen arte.

Bere izaera aktibo eta irekia zela medio, María Paz laster jarri zen buenosairestar artistekin harremanetan. Garai hartan, Argentinan, pintura errealistaz eta naturalistaz gain, “bande noire” zelako mugimendua sortu zen, errealismo existentsialistaren barruan.

Planteamendu surrealista da nagusi obratan: “Ezaguera dudantetik, inguratzen gaituen munduari begiratu izan diodanean, irrealtasun sentsazio handia izan dut”, berresten dute hitzek.

1939an, Buenos Airesen, Orión taldea aurkeztu zen, surrealismoarekin lotuta, eta oso litekeena da María Paz jakitun izan izana. Bestalde, baziren “pintore sentikorrak”, ñabardura finak irudikatzen zituztenak, subjektibotasun handikoak, eta baziren “pintore tolesgabeak”, giza gatazka edo gatazka sozialik gabeko pinturaren interpreteak.

María Pazek Eskola Libreetan sakondu zuen bere trebakuntza plastikoan, baita María Mercedes Rodrigué de Soto Acebalekin ere (1902-1986). Marie Laurencin Frantziako abangoardia kubistako pintoreak ere (Paris, 1883-1956) izan zuen eraginik harenan: Section d’Or taldearekin lotuta zegoen, eta Guillaume Apollinaire nobelagilearen musa izan zen.

Buenos Airesen, hainbat erakusketa eta sariketatan parte hartu zuen María Pazek. 1943. urtea berezia izan zen harentzat, Buenos Airesko Udalak “Pintura espontaneo eta irudimentsuaren saria” eman baitzion. Gertakari horren harira, pintoreak lehenengo erakusketa pertsonala jarri ahal izan zuen, Buenos Airesko Udala Aretoetan, “surrealismo esoterikoaren” barruko obrekin. Horrela adierazi zuen bere sentimena: “Erakusketa horretatik gelditzen

Paz, donde se aprecia un mundo sencillo y campechano, parejo al cultivado por su profesor como ilustrador afable.

En San Sebastián contrae matrimonio con su prometido. La nueva pareja se trasladó a Madrid en 1933, donde Alfredo completa sus estudios de ingeniería. Allí nació en 1935 su hijo Carlos, que de adulto también se dedicará a la pintura.

“Estoy ya casada y tengo veinticinco años cuando me inicio y entrego por entero a la pintura”.

Desde este momento, en su pintura se puede evaluar la búsqueda de modos trascendentes y hasta cuestionamientos espirituales.

En 1936 se encontraban residiendo en la capital donostiarra, cuando aconteció la toma de la ciudad, motivo por el que acordaron huir a Francia y posteriormente dirigirse a Argentina.

## EXILIO ARGENTINO

Desde 1938 la familia residirá en Buenos Aires, hasta quedar finiquitada la segunda guerra mundial en 1945.

Dado el carácter activo y abierto de María Paz, contactó prontamente con otros artistas bonaerenses. En aquel tiempo en Argentina, además de la pintura realista y naturalista, surgió el movimiento denominado “bande noire”, cuya práctica engrosaba un realismo existencialista.

En sus obras prevalece el planteamiento surrealista: “Desde que tengo recuerdo, al contemplar el mundo que nos rodea he experimentado una fuerte sensación de irrealidad”, palabras que corroboran su sentir.

En 1939 se presentó En Buenos Aires el Grupo Orión, vinculado al surrealismo. Acontecimiento que factiblemente, no pasó desapercibido para nuestra pintora. Asimismo, coexistían los denominados “pintores sensibles” que plasmaban matices delicados, con una carga de fuerte subjetividad, y “pintores ingenuos”, intérpretes de una pintura sin conflictos humanos ni sociales.

María Paz prolongó su formación plástica en las Escuelas Libres y con María Mercedes Rodrigué de Soto Acebal (1902-1986). Influyó en ella, la pintora de la vanguardia cubista francesa Marie Laurencin (París, 1883 - 1956), vinculada al grupo Section d’Or y musa del novelista Guillermo Apollinaire.

En Buenos Aires, concurrirá a varias exposiciones y concursos. 1943 fue un año especial para ella, al serle otorgado el Galardón de “Pintura espontánea e imaginativa” de la municipalidad de Buenos Aires. Suceso que motivó pudiera mostrar su primera exposición personal en las Salas Municipales bonaerenses, presentando

zaizkidan obra gutxitan ikus daitezke izaki haragigabetu bitxi eta poetikoak, bertikalean ihes egiten edo gora egiten dutenak, argi etereoan bilduta”.

Gainera, Arte Ederretako Emakumeen XII. Azokan, La Platako Azoka Nazionalean, Tout Petit azokan eta Arte Ederren Erakusketan aurkeztu zituen bere obrak.

Garai hartan nagusi zen pinturaren egikera, tonalitate gris-zurixkakoa, ametsetako prozesuaren gorespen irudimentsuarekin bat dator, zeinari bere poetika propioa gehitu zion.

Hego Amerikako giro artistiko hartan, Bretonen oihartzuna entzuten zen: La posición política del surrealismo argitaratua zuen Bretonek, eta artistaren independentzia defendatzen zuen, María Paz en iritzi pertsonalaren ildo-ildotik.

## DONOSTIARAKO ITZULERA

1945ean, Bizcarrondo-Jiménez familia Donostiara itzuli zen. “Nire pintura funtsean aldatzen da formaz eta edukiz. Poetizatua betiere, bizkortu egiten da, eta espresionismo bortitzeko formatu handiak sortzen dira, materia lodia, kolorazio motela, konposizio zentratuagoa eta marrazki garrantzitsuagoa”.

1940ko hamarkadan, figura estilizatu eta sinbolistako surrealismo quasi metaforikoa mantendu zuen María Pazek; unibertso magiko eta are autobiografiko bat, “txorimalo” edo “nano” esaten zenez osatutakoa. Pintorearen gai plastikoetan, emakume figurak protagonismo gailena du: ispiluaren aurrean orrazten ari diren neskatoak, pozik dantzatzen ari direnak, alai jolasten ari direnak; gorputz estilizatuak batzuk, eta potoloagoak beste batzuk, bakuntasun eta apaltasun idilikoaz gozatzen direnak. Mihiseak eta gouacheak, zeinetan autoreak bere sentsibilitaterik lirikoena jartzen duen.

Jesús Olasagasti, A. Ibarrola, E. Txillida, J. Oteiza artistekin harremanetan jarri zen María Paz; Luis Martín Santos, Camón Aznar intelektualekin; Gabriel Celaya, Blas Otero, Ángel Crespo, José Hierro poetekin; eta abarrek.

Donostiako kultur giroan, 1944an, Gipuzkoako Ateneoa berriro zabaldu zen, baita, udaletxeko etxabea, Udal Arte Aretoak ere. Ekimen pribatuak ere artearen alde egin zuen, eta mundu horrekin lotura zuten hainbat establezimendu sortu ziren: Ramón Hernándezek Zumardian zuen liburu denda; Groseko Azoka, Miracruz kalean; Arranz Darrás aretoa; Arte galeria; Rocandio aretoa.

1948an, senarrarekin batera, lehenengo aldiz, Frantziako hiriburura bidaiatu zuen María Pazek. Han, arreta berezia jarri

obras de “Surrealismo esotérico”. Nos relata así su sentir: “En pocas obras que me quedan de esta exposición pueden verse extraños y poéticos seres desencarnados, que se escapan o elevan verticalmente, envueltos en etérea luz”.

Además, presenta obras en el XII Salón Femenino de Bellas Artes, en el Salón Nacional de La Plata, en el Salón Tout Petit y en la Exposición de Bellas Artes.

La factura pictórica dominante, de tonalidades grises-blanquecinas practicada en este período, resulta acorde con una exaltación imaginativa de los procesos oníricos, a los que adiciona una poética propia.

En aquel ambiente artístico suramericano se respiraban los ecos de Breton, quien publicó “La posición política del surrealismo”, que defendía la independencia del artista, tan acorde con su sentir personal.

## REGRESO A SAN SEBASTIÁN

En 1945 la familia Bizcarrondo-Jiménez retornó a Donostia. “Mi pintura cambia fundamentalmente de forma y contenido. Poetizada siempre, se vitaliza, surgiendo grandes formatos de violento expresionismo, materia espesa, coloración apagada, composición más centrada y dibujo más importante”.

Durante la década de los años cuarenta, mantiene ese surrealismo casi metafísico de figuras estilizadas y simbolistas. Un universo mágico y hasta autobiográfico, que denomina “monigotes” o “enanos”. En su temática plástica la figura femenina tiene un protagonismo preponderante. Niñas que se peinan ante el espejo, otras danzan alegres, o juegan contentas. Cuerpos estilizados y otras más rellenitas, que participan gozosas de una inocencia y candidez idílica. Lienzos y gouaches, en los que María Paz aporta su sensibilidad más lírica.

Comienza a relacionarse con los artistas Jesús Olasagasti, A. Ibarrola, E. Chillida, J. Oteiza, con intelectuales como Luis Martín Santos, Camón Aznar, los poetas Gabriel Celaya, Blas de Otero, Ángel Crespo, José Hierro...

En el ámbito cultural de la capital donostiarra en 1944, aconteció la reapertura del Ateneo Guipuzcoano y las Salas Municipales de Arte en los bajos del Ayuntamiento. También la iniciativa privada apostó por el arte, surgiendo diferentes establecimientos relacionados con este mundo: Ramón Hernández, con su librería ubicada en la Alameda, el Salón de Gros (c/Miracruz), posteriormente Sala Arranz Darrás, Galería Arte (Avenida-1945) la Sala Rocandio.

El año 1948 María Paz realizó junto a su esposo el primer viaje a la capital francesa, donde prestó atención especial a la obra de

zuen Picassoren obran, eta abangoardiez ere interesatu zen. Era berean, Parisko Eskolaren abstrakzioak erakarri zuen, eta “art autre” zelakoa (“bestelako artea”) ezagutu zuen; hain zuzen ere, Michel Tapiék sortu zuen termino hori, izenburu bereko eta arte informalarri buruzko liburu baten izenburuan.

Paristik bueltan, pixkana-pixkana, figuraziotik joera neokubistako konposizio eraikuntzara pasatu zen.

Garai hartan, lan egiteko metodoa aldatu, eta zenbait natura hil egin zituen. Trazu zabalak ateratzen zitzaizkion paletatik, eta pintzelkada indartsuagoa bilakatu zen, keinu nabarmeneko. Kolorea kromatismo neurtutik azaleratzen zen, eta, horrela, planteamendu berri bat sortu zen.

### LEHENENGO OBRA ABSTRAKTUAK (1949-1955)

1949an, Gipuzkoako Arte Elkartera atxiki zen María Paz. Ricardo Baroja zen Elkarteko burua, eta San Telmo Museoaren eranskin batean zegoen lokala, zeinak erakusketa areto bat ere bazuen. María Paz ireki zenetik agertzen zen bazkideen artean, lehenengo zerrendan.

1949an bertan, bi erakusketa indibidual jarri zituen: Donostiako Ateneoaren aretoan bata, eta Estudio galerian bestea, Bilbon. Alde horretatik, Guillermo Wakoniggen garrantzia azpimarratu beharra dago: hura zen Bilboko galeriaren arduraduna, eta hark animatu zuen María Paz etorkizunean bere pinturaren planteamenduak kubismorantz bideratzera. Horrela, gero, abstrakzioaren alde egin zuen pintoreak.

Hurrengo urtean, 1950ean, Clan galerian erakutsi zituen bere lorpenak, Madrilén; garai hartan, zalantzarik gabe, hura zen lekurik aproposena arterik berritzaileena aurkezteko. Haustura sumatzen da garai hartako planteamendu estetikoetan: autoreak halako keinuzko abstrakzio tatxista jorratu zuen orduan. Pierre Soulages, Scheider, Hans Hartung eta N. Staëlek 1940ko hamarkadaren amaieratik landutako formulazioen oihartzuna ekarri zuen.

Estruktura bertikal eta zeharrik, egitura bat osatzen dutenak, elkar astintzen; bilbea gainezkatzen saiatzen diren trazuak, espazio aktibo bat sortzen dutenak, mugikorra; marra kementsu bideratuak, beraiek sortzen doazen espazio baten gaineko kolore zerrendetan oinarrituak.

Baliteke María Paz Joan Miróren iritzi berekoa izatea, arrasto surrealetik desertatu eta zera esan baitzuen hark: “Niretzat, forma bat ez da abstraktua inoiz ere; zerbaiten adierazgarri da beti”<sup>2</sup>.

Picasso, interesándose por las vanguardias y atrayéndole también la abstracción de la “Escuela de París”. Descubrió el “art autre” (otro arte), término acuñado por Michel Tapié, quien dio a luz un libro con ese encabezamiento, concerniente al arte informal.

A su regreso de París, mudará paulatinamente desde la figuración a la construcción compositiva de signo neo-cubista.

Período en el que elabora una serie de bodegones, cambiando de método de trabajo. De su paleta afloran los trazos dilatados, la pincelada se hace más vigorosa, con una marcada gestualidad. El color emerge a través de cromatismo medido, lo que le supone un planteamiento renovado.

### PRIMERAS OBRAS ABSTRACTAS 1949-1955

El año 1949 se adhirió a la Asociación Artística Guipuzcoana, liderada por Ricardo Baroja. Su local ocupaba un anexo al Museo de San Telmo y contó con sala de exposiciones. María Paz figura como asociada desde su apertura, en la primera lista.

Aquel 1949, exhibió sendas muestras individuales: en las Salas del Ateneo donostiarra y en la bilbaína Galería Estvdio. Llegado a este punto, conviene rotular la importancia de Guillermo Wakonigg, que era quien regentaba la galería bilbaína, y quien orientó y animó a nuestra pintora, a administrar sus futuros planteamientos pictóricos hacia el cubismo, que posteriormente la llevará a decantarse por la abstracción.

Al año siguiente 1950, exhibe sus logros en la madrileña galería Clan. Espacio, que por entonces era indiscutiblemente el idóneo, para presentar el arte más aperturista. Es en ese momento donde se aprecia una ruptura en los planteamientos estéticos, poniendo en práctica una suerte de abstracción gestual-tachista. Aporta ecos de formulaciones trabajadas por Pierre Soulages, Scheider, Hans Hartung y de N. Staël desde finales de los años cuarenta.

Estructuras verticales y oblicuas, que forman un entramado, agitando entre ellas. Trazos que intentan desbordar la trama, creando un espacio activo, móvil. Rayas enérgicas direccionadas, a base de franjas de color sobre un espacio, que ellas mismas van creando.

Puede que nuestra pintora opinara como Joan Miró quien, tras desertar de la huella surreal, comentó: “para mí una forma nunca es algo abstracto; siempre es signo de algo”<sup>2</sup>.

2 Aguilera Cerní, Vicente. "Iniciación al arte español de postguerra". Ed. Península, 1970.

2 Aguilera Cerní, Vicente. "Iniciación al arte español de postguerra". Ed. Península, 1970.



“Bere autodidaktismoa zela-eta, etengabeko ansia egoeran zegoen, hala artearen esparruan, nola poesiaren, zinemaren eta filosofiaren esparruan”<sup>3</sup>, zioen J. Luis Merinok.

Arreta intelektual handia eta sortzeko bizitasuna autorearen nortasun konplexua deszifratzeko lagungarri dira. Hain zuzen ere, 1951ko, 1953ko eta 1955eko Madrilgo Biurteko Hispanoamerikarrean aurkeztu zituen obretan azaleratzen da haren nortasuna. Bestalde, Parisen espainiar arteari eta Baionan euskal pintoreei eskainitako erakusketetan parte hartu zuen María Pazek.

Poliki-poliki, materiaren ñabarduretan sakontzen joan zen, denboraren arrasto eta zaurietan, koadro bakoitza iturri existentzial enigmatikoko sinbolo embrionario bilakatzeraino.

1954an, Arte Ederren Espainiako Erakusketan parte hartu zuen, Madrilen, eta, han bertan, Menchu Galen bidez, Madrilgo Eskolako zenbait kiderekin harremanetan jarri zen, baita abstrakzioa lantzen zuten hainbatekin ere, hala nola José Vento eta Manuel Mampasorekin; Mampasok, zehazki, Pasaian ematen zuen uda, eta estudio bat zuen bertan. Garai hartan, bakarkako erakusketa bat jarri zuen María Pazek, Estilo galerian.

Merezimendu osoz, ezagutza egin zitzaion orduan: 1954an, Donostiako Ateneoak bigarren saria eman zion –Rafael Munoiari ere eman zion–, eta, hurrengo urtean, ohorezko saria irabazi zuen Eguberrietako Sariketan, San Telmo Museoko funtsean sartu zen obra batekin.

## MATERIAZKO ABSTRAKZIOA (1959-1962)

1957an, Juan Eduardo Cirlotek Arte otro liburua argitaratu zuen, informalismoari buruzkoa, eta zera azaldu zuen: “Aintzat hartzen ez denaren interes formala, normalean kontzientziaren atalasetik behera erortzen diren irudi miserable edo bitxi baliok: horixe da “bestelako arte” hau motibatzen duten alderdi existentzialetako bat. Adibidez, hodei herdoilduak, urrun desegiten, berun koloreko atzealde grisaren gainean; hondar pilo bat ilargitean; edo, are soilago, kaleetako asfaltoaren testura, minaren minez harritzen gaituen objektu baten ezohiko distira”. Informalismoak modu iraultzailean planteatzen zuenez, “forma materiaren mendean dago”<sup>4</sup>.

María Pazen pintura poliki eta zorrozki bilakatu zen, bere planteamenduak hausnartuz, zeinak, ikusi dugunez, Cirlotenengandik gertu zeuden.

3 Merino, José Luis. “La pintura jonda de María Paz”. (Cat.) Museo de Bellas Artes de Bilbao, 2012.

4 Ureña, Gabriel. “Las vanguardias artísticas en la postguerra española 1940-1959”. Istmo. 1982.

“Su autodidactismo le conducía a un estado de ansia continuo —señala J. Luis Merino— lo mismo en el terreno del arte, como en el de la poesía, del cine o de la filosofía”<sup>3</sup>.

El intenso desvelo intelectual y la vitalidad creativa, nos ayudan a descifrar su compleja personalidad, que aflora en las obras presentadas por ella en las Bienales Hispanoamericana celebrada en Madrid (1951, 1953, 1955). Acudió a las muestras de “Arte español”, en París y en Baiona, esta última dedicada a “Pintores Vascos”.

Pausadamente, fue ahondando en los matices de la materia, en las huellas y las heridas del tiempo, hasta transmutar cada cuadro, en un símbolo embrionario de enigmáticas fuentes existenciales.

Concurre en Madrid a la Exposición Nacional de Bellas Artes (1954). En la capital madrileña a través de Menchu Gal contactó con algunos miembros de la “Escuela de Madrid”, y con practicantes de la abstracción como: José Vento y Manuel Manpaso. Este último veraneaba en Pasajes, donde tuvo estudio durante varios años. Momento en que expone individualmente en la galería Estilo.

Son años de reconocimiento meritorio. Recibe el segundo premio del Ateneo donostiarra (1954) compartido con Rafael Munoa. Al año siguiente obtiene el premio de Honor en el Certamen de Navidad, obra que pasó a formar parte de los fondos del Museo de San Telmo.

## ABSTRACCIÓN MATÉRICA 1959-1962

Juan Eduardo Cirlot publicó en 1957 su libro “Arte Otro”, sobre el informalismo. Explicando: “El interés formal de lo desatendido, el valor de imágenes miserables o extrañas, de ordinario caídas bajo el umbral de la conciencia, éste es uno de los aspectos existenciales que motivan este “arte otro”. Por ejemplo, nubes oxidadas deshaciéndose en la lontananza contra un fondo gris plomo, un montón de arena a la luz de la luna. O más sencillamente aún: la textura del asfalto de las calles, el esplendor insólito de un objeto cuyo dolor nos sorprende. “El informalismo planteaba de un modo subversivo: “La forma está condicionada a la materia”<sup>4</sup>.

La pintura de M<sup>a</sup> Paz evoluciona lenta y exigentemente, reflexionado en sus planteamientos como vemos, cercanos a lo señalado por Cirlot.

3 Merino, José Luis. “La pintura jonda de María Paz”. (Cat.) Museo de Bellas Artes de Bilbao, 2012.

4 Ureña, Gabriel. “Las vanguardias artísticas en la postguerra española 1940-1959”. Istmo. 1982.

1959tik 1962ra bitartean, estilo baten gramatika eta sintaxia ontzen joan zen María Paz, materiakzko etapa bere egiten. Perspektibaren eta kuboaren inongo eraginik gabeko errealismo bisual eta kontzeptuala berrezartzeari ekin zion.

Garai hartan, behin baino gehiagotan, Parisera bidaiatu zuen. Abstrakzioa surrealismotik informalismora zeraman pasarelatzat hartu zuen, eta, laster, Jean Fautrierrek Parisko 1943ko erakusketaren ondoren urratutako bidearen parte izan zen, eta materialtasunari erabateko lehentasuna eman zion. Ukipen pintura landu zuen, eta, horrela, unibertsoa berregin: sentsitiboa, pertzeptiboa, arriskuz betea eta oparoa. Bitarte horretan, borondatezko abstrakzioa egin zuen, gehiengoak kubismoa guztiz bereganatu ez eta mugimendu horri artean mesfidati begiratzen zion garai batean.

1955ean, María Pazen obrak Clan galerian ikusgai egon ziren berriro; hainbat marrazki eta gouache, A. Schönbergen atonalismo musikaren karga inplizitua zutenak. Mihiseetan, bere motibazio propioen sakonean murgiltzen saiatzen zen, eta protagonistatzat masa pigmentatua eta koadroaren epidermisa zuten lanak erakutsi zituen.

1962tik 1965era bitartean, sormen krisia sentitu, eta alde batera utzi zuen pintura eredu hori. Aldi berean, gaixotasun bat izan zuen, eta, haren ondorioz, ohean egon behar izan zuen denbora luzez. Introspektzio momentuak izan ziren, irakurketa momentuak...

## ESPAZIALISMO IDILIKOA (1966-1974)

María Pazen ekoizpenaren barruan, 1960ko eta 1970eko hamarkaden artean, hauxe da etaparik interesgarrienetako bat: espazio arindua eta pintura lasaia.

Carlos Arean kritikariak “pintura eta eskultopintura ez-figuratiboez”, forma aldakorrez, keinu bidezko aldaera espazialistez idatzi zuenez –hain barruan kokatzen dugu María Paz–, “espazialismo hutsak eremu kromatikoen irekitasun mugagabe eta biluzi bera iradokitze joera du, ahalik eta forma eta adierazpen elementu gutxienak erabiliz”<sup>5</sup>.

Espazioa deszifratzeko pasio finduak ebokazio kosmikoko lirismoarekin lotu zuen María Paz, beren baitan bildutako eta sentsibilitate dotoreaz irudikatutako erresonantziak zituen lirismo batekin.

Haren mihiseetan, surrealismoak eta arte konkretuak bat egiten dute, espazio garbietan, non kurbak zeinu sotil bat hartzen duen bere barnean, non koloreak bolumetriak eta are ezkutuko perspektibak deszifratzen dituen. Pintura abstraktua eta

Nuestra artista, irá elaborando entre 1959 y 1962 la gramática y la sintaxis de un estilo, haciendo suya esta etapa matérica. Aborda la reinstauración de un realismo visual y conceptual no influido por la perspectiva ni el cubo.

En este período realizó varios viajes a París. La abstracción se convirtió para ella en una pasarela, transportándola del surrealismo al informalismo. Pronto participa de la vía iniciada por Jean Fautrier tras su muestra parisina del cuarenta y tres, dando prioridad total a la materialidad. Trabaja la pintura táctil, rehaciendo un universo sensitivo, perceptivo, arriesgado y generoso. Intervalo en el que recoge una abstracción voluntaria, en un momento en que la mayoría mira aún este movimiento con suspicacia, porque no han terminado de asimilar el cubismo.

En 1955 vuelve mostrar sus obras en la galería Clan. Exhibiendo una serie de dibujos y gouaches con carga implícita del atonalismo musical de A. Schoenberg. En sus lienzos se lanza hacia las profundidades de sus propias motivaciones, exhibiendo unos trabajos protagonizados por la masa pigmentada y la epidermis del cuadro.

Siente la crisis creativa y abandona este modelo de pintura (1962-65). Momento, que coincide con una enfermedad, que la tendría postergada en cama por un largo tiempo. Son momentos de introspección, de lecturas...

## ESPACIALISMO IDÍLICO 1966-1974

Estamos ante una de las etapas más interesantes de su producción, abordada entre los años sesenta y setenta. Espacio aligerado y pintura de serenidad.

El crítico Carlos Arean, escribe al referirse a la “pintura y escultopintura no figurativas”, a las formas fluctuantes, a las variedades gestuales y espacialistas, donde situamos a María Paz, y dice: “El espacialismo puro tiende a sugerir con una máxima economía de formas y de elementos expresivos esa misma apertura ilimitada y desnuda de los campos cromáticos”<sup>5</sup>.

Su pasión refinada por un descifrar el espacio, la ligará a un lirismo de evocación cósmica, de abstraídas resonancias, plasmadas con una sensibilidad exquisita.

Emerge en sus lienzos, una refundición de surrealismo y arte concreto, materializado en espacios nítidos, donde lo curvo acoge un signo sutil, el color descifra volumetrías y hasta perspectivas celadas. Su pintura es a un tiempo abstracta y figurativa. Abstracta, en tanto que es muro diluido y figurativa, en tanto que es

5 Arean, Carlos. 1971. "Balance del Arte Joven en España". Madrid. Publicaciones españolas, Núm. 516.

5 Arean, Carlos. 1971. "Balance del Arte Joven en España". Madrid. Publicaciones españolas, Núm. 516.

figuratiboa da aldi berean: abstraktua, horma urtua den aldetik, eta figuratiboa, espazioaren irudikapena den aldetik. Postulatu geometrikoetan sartu gabe, pintorearen obra halako formulazio liriko bat da, zeinetan misterioa datzan. Kontenplaziozkoa bakarrik izateko sortutako pintura da. 1968an, Nebli galerian (Madriren) ikusgai jarri ziren obra horiek, eta aurkezpena gertakari aipagarria izan zen. Hegada magikoko irudimenaz, pintatzeko ekintza bera planteatu zuen, eta egitura eta testura mezu bakarraren eramaile gisa agertu.

1972an, Santiago Amón kritikariak artista talde bat hautatu zuen, “Egungo euskal artea” erakusketarako (Iruñeko Topaketetarako), ideia herrikoiez jabetu eta berauek abangoardia plastikora aldatuta haien obren bidez “euskal artearen” sistematizazioa transmititzeko. María Pazek obra sortu berria jarri zuen erakusketa horretarako.

1975ean hil zen pintora, eta orduan bakarrik baztertu zuen espiritu esperimentalak, bere bizitzako konstantea. Koadroaren gainazala eskulturaren berezko espazioan sartzen zen, eta artista “transberberazioei” eman zen, karrakatzeari alegia, gainazala pitzatuta, materia kenduta, zatiak erauzita eta materia geruzak jarrita. Zur errea erabiliz, zauri ireki baten antzeko piezak eraiki zituen, eta, berauek osatzeko, manipulaziorako, sua eta pigmentu, lausodura eta tonalitate modulatuak bilbe bat erabili zuen. Ukimenak, zeinak betidanik kezkatu zuen, bere presentzia finkatu, eta planoak zeharkatu zituen, eta, horrela, gainazala zatikatu. Planoa zulatu zuen, abzesu bat balitz bezala, eta gure begirada berehala erakarri. Gainazal horretan, kolorearen tratamenduak berebiziko eginkizuna betetzen du. D’Orsen esapide bat dakar gogora: “kolorea, argiaren harra”. Amaierako obrek Espainiaren berezko dramatismoa dute beren baitan.

Obra hauen aurrean, nork galdetzen dio bere buruari zer esan nahi duen horma zeharkatzeak.

Erakusketa hau burutu eta agur esan aurretik, irudimenaren lerradura txiki bat proposatzen digu María Pazek.

representación del espacio. Sin llegar a los postulados geométricos su obra conforma una suerte de formulaciones líricas, donde se encierra el misterio. Penetramos en una pintura creada para ser puramente contemplativa. La presentación de estas obras en la madrileña galería Nebli (1968), supuso un evento notorio. Con una imaginación de mágico vuelo, plantea el acto de pintar en sí mismo, revelando la estructura y la textura como portadores del mensaje único.

En 1972, el crítico Santiago Amón escogió un grupo de artistas para la muestra “Arte Vasco Actual”, dentro de los Encuentros de Pamplona. El objetivo, fue transmitir a través de las obras de estos artistas, la sistematización de un “arte vasco”, apropiándose del ideario popular para trasuntarlo en la vanguardia plástica. Nuestra artista aportó a esta muestra, obra de reciente creación.

